

DESPLAZAMENDUETAKO BALIZKO DEIALDIA

Gaur, hilak 23, ikasturte honetako azken mahai negoziatzailea izan da gai bakarra izanik, **langile finko eta LEP artekoentzako iraileko balizko mugimenduentarako deialdia**. Prozedura hau da matrikulazioaren gora-beherei eta hitzarmenaren **13. artikuluan oinarritutako langileak behin-behinean birkokatze**ko Enpresak erabilitako zirrikitua, Lanpostuen Zerrenda moldatu gabe.

Atzo bertan, **LAB sindikatuak** argitaratutako INFO 14._an azaldu genituen mahai negoziatzaileko LABek bidalitako **proposamen eta eskaerak**.

<https://www.facebook.com/172017619561935/posts/4069057246524600/>

Haurreskolak Partzuergoak aurkeztutako **proposamenean** jasotzen den **irizpidea** izan da **pandemia aurreko ratiotan oinarritutakoa**. Honen aurrean, **LAB sindikatutik** datorren ikasturterako **pertsonal hornikuntza egokia egiteko proposamenaren defentsa sutsua** egin dugu bileran.

Eztabaida luze baten ostean, LABek proposatutako egutegia onartu ez bada ere, printzipioz ondorengo egutegia erabaki dute. *

- Uztailak 26 eta 27: LAB sindikatuak sinatutako 2018ko akordioarekin batera sinatu eta hobetutako ordezkoen araudian zehazten den moduan:
 - Hurrengo ikasturtera begira ordezkoen zerrendan behin-behineko baja egoeran jartzeko aukera (Ordezkoen araudiko 5.1d) oinarrituz).
 - Ordezkoen zerrendan, lanerako prest jartzeko aukera (Ordezkoen araudiko 5.1a) oinarrituz).
 - Indarrean dagoen kontratuari uko egiteko aukera (Ordezkoen araudiko 5.4 b) oinarrituz).
- Uztailak 30. Balizko deialdia argitaratuko da.
- Abuztuak 23. Haurreskolan desplazaturen bat izatekotan, desplazatua izateko borondatezko eskaera aurkezteko eguna.
- Abuztuak 24. Desplazatuen eta eskaintzen diren haurreskolen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.
- Abuztuak 25. Erreklamazioak aurkezteko eguna
- Abuztuak 26. Desplazatuen eta eskaintzen diren haurreskolen behin betiko zerrendak.
- Abuztuak 27. Desplazamentuen hautaketa-eskaera emailaz bidaltzea.

*(bestelako zehaztapenak deialdian argituko dira)

LABek egindako ekarpenari esker, kontingentzia planak aurrera eramán ahal izateko, **errefortzuak ezarriko dituzte**, eta modu horretan, Partzuergoak proposatutako **desplazamendu batzuk ekidin ditugu**. Beraz, kontratupean gauden langileekin beteko dira errefortzuak

Hauék dira **Haurreskolak Partzuergoak eta Administrazioak hartutako konpromesúak**:

1. **Covid errefortzuak** irailaren 1tik:

- Unitate bakarreko haurreskoletan:
 - 8 haur > geletan: jardun osoko hezitzaile bat gehiago
 - 8 haur < geletan: 2 hezitzaile
- 2-3 unitateko haurreskoletan: hezitzaile bat gehiago
- 4 unitatetik gorako haurreskoletan: 2 hezitzaile gehiago

3. Aurten egin diren **aparteko orduen erabilpen ankerrik ez** egiteko konpromesua.

4. **Ordezkapenak lehen momentutik** egingo dira 2018an LABek sinatutako akordioan jaso zen bezala.

5. **Epez kanpo matrikulazioak kudeatuko** da.

Dena den, **LAB sindikatua adi egongo da** konpromisu hauék betetzen diren **bermatzeko**.

Horrez gain, LABek eskatu duen desplazamenduekin eta **bestelako gaiekin lotutako informazioaren berri** ematen dizuegu:

• **Uztailaren 21an**, Zuzendaritza Batzordean Ordezkoen zerrendako **Gorako Helegiteak ebatsi ziren** eta Haurreskolak Partzuergoak jakinarazitakoaren arabera, **gaur edo astelehenean** onartu/ez onartuen zerrendak eta horrekin batera, behin-betiko zerrendak (orokorra, herrialdeetakoak eta zeinu-hizkuntzakoa) **argitaratzeko asmoa dute**. Beraz, irailaren 1etik aurrera haxe izango da indarrean egongo dan zerrenda.

Azkenengo momenturarte jo ta ke lanean egon gara baldintza egokienetan ikasturtea hasteko. Hainbat gauza lortu ditugu eta argi utzi dugu, zerbitzuaren kalitatea eta lan baldintzak hobetzeko borrokan jarraitu beharko dugula.

Animo eta aurrera!!!

Oporraldi on!!!